

**ZENBAT BURU**  
Jon Peli Uriguen

**ERREPORTAJEA**  
Ikusmen arazoak  
eta irtenbideak

**UDALETXETIK**  
Ekaingo kobazulo-  
en erreprodukzioa  
ez da Deba  
Barrean egingo

**BERBETAN**  
Manuel Lazkano,  
Institutuko ortuko  
arduraduna

**KIROLA**  
440 haurrek hartu  
zuten parte  
VI. Haur Krosean


# BARREN

1999ko apirilaren 23a  
VII. urtea - 275. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



**Domekan, hilak 25,  
Elgoibarko VIII. Duatloia**



Lokal berria  
SANTA ANA, 22AN!

# Agurtzane

## Ileapaindegia

- ▶ BEZERO GUZTIEI JAKINARAZI NAHI DIEGU LEKUA ALDATU DUGULA.
- ▶ APirilak 28, Asteazkena, Arratsaldeko 17:00etan izango den INAUGURAZIORA GONBIDATUTA ZAUDETE.



### Zerbitzu berriak:

- Manikura eta pedikura.
- Depilazioa, asteartetan eta asteazkenetan argizari beroarekin eta epelarekin.

Santa Ana, 22 · Tel. 943 74 18 64



# estilorik

handiena  
edozein *ikuspegitatik*

Goza ezazu eguzkitako  
betaurrekoen modaz.  
Eta orain, eguzkitako betau-  
rreko  
graduatuak...

**8.900 pta.** tik aurrera.

**MULTIOPTICAS UZURI** PTIKA


ZERBITZU OPTIKOETAN LEHENA

San Frantzisko, 21 · Tel: 943 74 03 59 · ELGOIBAR  
Ostolaza, 7 · Tel: 943 19 21 92 · DEBA



[www.multiopticas.com](http://www.multiopticas.com)  
Bezeroaren arretarako telefonoa:  
900 34 35 36





JON PELI URIGUEN

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Joanak joan

**D**enboraren joan-etorriaz, ezinbestekoa da atzera begiratzeko orduan, oroitzapen eta burutapen andana gogora ekartzea. Eguneroko gaurkotasanak atzoa ezabatzen duela badirudi ere, edozein unetan gure bizitzako hainbat pasadizo gogora ditzakegu, onak eta txarrak, garrantzitsuak ala hutsalak. Ezagututako pertsonak ere ikuskatuko ditugu gure pentsamenduan... Eta pertsonaz aritu nahiko nuke gaur, gure bizitzan inguruko pertsonak uzten dituzten seinaleez, gure bizitza era batekoa ala bestekoa izan dadin bideratzeraino. Badira gizakien bizitzan eragin handirik izan gabe pasatzen diren pertsonak, guztiz arrotz gertatuz, eta, beste muturrean, onerako ala txarrerako, zeresana izan dutenak. Azken horiek dira gure memorian bizirik iraungo dutenak.

Pertsonak denbora gutxi bizitzeko jaioak gara, eta, biziko bagara, besteen memorian biziko garelako izango da.

Inor ez da guztiz joango baldin eta beste norbaiten baitan bizi bada (bakarra izanda ere).

Beraz, eta memorian iraute hori lortzeko, ezinbestekoa da jendearen maitasuna eta onespena lortzea, denok ere, azken finean, gauza onak bakarrik gogoratzen ahalegintzen garen heinean. Hori lortzen dutenak bere lagunak eta bere herriaren memorian izango dira betirako.

Komeni ez dena, dena den, oroitzapenez soilik bizitzea da, eta, beti ere bizitzak emandakoaz ikasita, aurrera begiratzuz jarraitu behar da, bide batez pertsona horiek egindako lanari jarraipena eman diezaiotkegulako, bizirik mantendu den memoria hori denboran luzatuz.

Herriaren memoria kolektiboa, azken finean, gizabanakoen memorian oinarritzen denez, eta herria, memoria galduz gero, ezer gutxi litzatekeela kontuan hartuz, gure aurretik izan direnek egindako lanaz baliatuz, herriaren memoria indartu behar da, guztien memoria indartzuz.

**"Badira gizakien bizitzan eragin handirik izan gabe pasatzen diren pertsonak, guztiz arrotz gertatuz, eta, beste muturrean, onerako ala txarrerako, zeresana izan dutenak. Azken horiek dira gure memorian bizirik iraungo dutenak"**

## Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

#### ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarria

#### LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegia, Asier Orbea

#### PUBLIZITATEA

Maitane Cid

#### MAKETATZAILEA

Bea Ansola

#### ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

#### GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

#### KOLABORATZAILEAK

Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ESALDIA Gotzon Garateren liburutik

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga


INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlearitzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



## Lizarra-Garazi Elgoibarren?

Apirilaren 28an, San Prudentzio eguna, Lizarra-garazi Itunaren aurkezpena izago dugu Elgoibarren. Jakin dudanez, Joseba Egibar (AEJ/PNV), Arnaldo Otegi (EH) eta Rafa Larreina (EA) izango dira itunari buruz berba egingo dutenak. badaukat Herriko Antzokira joateko asmoa; ez naiz joango bertan esango dena jakiteko, irrikaz nagoelako edo nobedaderen bat entzuteko ilusioa dualako, geihago edo gutxiago, denok ere badakigu Lizarra-garaziren atzean zer dagoen, bai alde gaudenok eta baita kontra daudenok ere. Herriko Antzokira Lizarra-Garazirekin hasi den prozesuari nire atxikimendua eta babesa azaltzeko joango naiz.

Aspaldiko negarra da euskaldunok batu egin behar dugu! Honako hau orain arte egin den saiakera serioena iruditzen zait. "baina Lizarra-Garazin ez gaude euskaldun guztiok" esango dit norbaitek. Egia da, euskaldun batzuk (eta espainiar gehienak) ez dute bat egin nahi eszenatoki berri honenkin. Zergatik? Lizarra-Garaziren futzioetariko bat euskaldun guztiontzat balekoa izan daitekeen markoa prestatzea da, baina garbi izan da markoa, edozein izanda ere, euskaldunok erabaki behar dugula. Izan ere, nire iritziz, helburua ez da, derrigorrez, denon gustukoa den zerbaite prestatzea. Helburua euskaldunon eta Euskal Herriaren geroa bermatuko duen markoa prestatzea da. Marko horretan gustura ez dagoenak berak jakingo du zergatik ez dagoen. Lizarra-Garazi orain arte

parametroak eta diskurtsoak alde batera laga, eta herri honi itxura berria eman dizaiokeen ahalegin baten hasiera bezala ikusten dut. Abantatzeko motiboa behar genuen eta hor daukagu.

Baina Lizarra-Garazi ez dute Arnaldok eta Egibarrek bakarrik mamituko. Bi hauek, beste batzuekin batera, bidea erakutsiko digute, lehen urratsak ere eman dituzte. Baina orain guri dagokigu bide horretan aurrera egitea. Gure esku dago abantatu direnen bidelagun izatea. Azken finean, Euskal Herriko herri bakoitzean Lizarra-Garazi txiki bat osatu behar dela uste dut. Herrietan egituratzen diren Lizarra-garaziek emango diote benetakito itxura eta edukia gaur goitik proposatutako Lizarra-Garaziri. Izan ere, ez dakit zenbaiterainoko mesedea egingo ligukeen Arnaldo eta Arzalluz elkarrekin barrezka ikusteak, gero herrietako EH eta PNVko zinegotziak elkarri ikusi ezinik badabilta.

Bidea ibiliaz egiten omen da eta oraingo hasi baino ez gara egin. Bidaia on!!

I.A

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitz guztiok ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.

## GALDERAK

◆ Artetxe auzoko bizilagun batek honako galdera hau luzatu digu: **“Ba al du Udalak Artetxe auzoan iturria jartzeko asmorik?** Beste auzo guztietan iturriak daude eta guk ere gurea izateko eskubidea daukagu”. Erantzun bila Udaleko Hirigintza sailera deitu dugu eta honela erantzun digute. **“Momentuz ez dago Artetxan iturririk jartzeko asmorik edo proiekturik.** Gainera Artetxe auzoa ez da iturria ez daukan bakarra, beste auzo batzuk ere iturririk gabe daude”.

## KEXAK

◆ Artetxe auzoan bizi den emakume batek deitu digu honako kexa hau azaltzeko: **“Udaleko langileek gure etxe ondoko pinua bota dute** eta izugarrizko balio sentimentala zeukan niretzat. Aita zenak eta lagun batek landatutako pinua zen eta pena handia eman dit. **Dirudienez, zenbait auzotar euren etxeetan pinu horrek sortzen zituen ur filtrazioez kexatu zirelako hartu zuten botatzeko erabakia.** Baina Udalekoek ur filtrazioak pinuarengatik izan zitezkeen probatu gabe bota zutela pentsatzen dut, eta hori ez dago ondo”.

◆ **Santa Ana kale amaieran, errotondatik Andikano baserriko bidearen hasierara dagoen zatia zuloz beteta dagoela-eta, Udalak konpontzeko asmorik ba ote duen galdetu digu herritar batek.** Udaletik adierazi digutenez, **“errepide hori konpontzeko asmoa badago, baina azken etxeen atzean dagoen aparkamentu ondoko iturburua edo manantiala da lanak hasteko oztopoak jartzen dituen”.**

# BAI, ESAN?



## Ramon Maiztegi

Odol Emaleen Elkarteak

Deba Bailarako Odol Emaleen Elkarteak 25 aldiz odola eman dutenei domina bana jarriko die maiatzaren 2an, igandea, Arantzazun egingo duen bileran. Horien artean 17 elgoibartar daude. Gure herrian bada **Odol Emaleen Elkarte**a eta guk bertako **presidentea** den **Ramon Maiztegi**rengana jo dugu gai honen inguruan zerbait gehiago jakiteko.

### - Odol emale asko al dago Elgoibarren?

- Odol Emaleen Elkarte 1965ean hasi zen Elgoibarren. Garai hartan urtean hiru aldiz egiten ziren odol ateraldiak eta 40 frasko ateratzen ziren. Gaur egun 400 odol emale daude eta 800 frasko ateratzen ditugu, 320 litro guztira. Orain, urtean 16 ateraldi izaten dira eta horrek lan handia ematen dio zuzendaritzari.

### - Zer baldintza bete behar dira odola emateko?

- Ateraldi bakoitzean sendagile bat etortzen da eta odol emale berriei fitxa betetzen die. Proba baten bitartez anemia daukan neurtzen dio pazienteari, eta edukiz gero, ezin du odolik eman. Era berean, kontuan hartzen dira daukan gaixotasunak, besteak beste, tentsio bajua daukan, gibekeko gaixotasunen bat baldin badu, HIESik duen... Beste baldintza bat 18 urtetik 65era bitarteko adina izatea da.

### - Nora joaten da Elgoibarren jasotako odola?

- Donostian Diputazioak emandako lokal batean odol-bankua daukagu eta bertara eramaten dute. Ospitaletatik odol eskaerak izaten dira, eta beraiek eskatutako odol mota eta kopurua edukiz gero, bertara eramaten dute.

### - Zer egin beharko litzateke jendea odola emateko kontzientziatzeko?

- Propaganda egitea, jendeak bizi garela ikustea komeni da. Isilean lan eginez gero, inor ez da konturatzen Odol Emaleen Elkarteak kideak egiten ari garen lanaz.


### - 17 elgoibartar sarituko dituzte aurten.

- Oso pozgarria da guretzat, agian gehiago egon beharko lirake, baina daudenekin ezin gara kexatu. Lehen 25 aldiz ematen zuenari urrezko domina ematen zitzaion eta 50 egiten zituenari platinozkoa. Gaur egun, odola urtean bi aldiz eman daitekenez, errazago iritsi daiteke domina lortzera.



### I. URTEURRENA

1998ko apirilaren 25ean, 68 urte zituela hil zen  
**RAMON URIGUEN SODUPE** “*Etxegiña*”ren oroimenez  
**URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian  
larunbatean, hilak 24, arratsaldeko 19:00etan.  
Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.






# BEGI GUZTIEK EZ DUTE berdin ikusten

**MENDEBALDEKO GIZARTEAN BIZTAN-LEGOAREN ZATI HANDI BATEK DU IKUSMEN ARAZOREN BAT EDO BESTE. NORK EZ DU EZAGUTZEN BERE INGURUAN BEGIETAKO ARAZOREN BAT DUEN INOR? MIOPIA EDO URRUTIRA IKUSTEKO ZAILTASUNA DA ARAZO ZABALDUENA. ADIERAZGARRIA DA ESATERAKO, HIRUGARREN MUNDUAN EZ DAGOELA APENAS MIOPIA KASURIK. GURE GIZARTEKO BIZIMODUAK ERAGITEN DITUEN IKUSMEN ARAZOAK DIRA, ORDENAGAILUAREKIN LAN EGITEGATI, IRAKURTZEKO ETA TELEBISTA IKUSTEKO OHITURENGATI... ARAZO HAUEN TRATAMENDUAK ARDURATZEN DEN ARLOAK, OPTIKARENAK ALEGIA, IZUGARRIZKO AURRERAKUNTZA IZAN DU. BETAURREKOEKIN DISEINU ETA KALITATEA ASKO HOBERTU DA, GERO ETA GAZTE GEHIAGOK ERABILTZEN DITU LENTILAK, EROSOAK BAITIRA, ETA LASERRAREN BILAKAERARI ESKER, DUELA URTE GUTXI PENTSAEZINAK ZIREN HELBURUAK LORTU DIRA. ARAZOA OROKORRA DA ETA IRTENBIDEAK ANITZAK. GUK, HIRU ELGOIBARTARREK AUKERATU DITUZTEN IRTENBIDEEN BERRI JAKIN NAHI IZAN DUGU, GOIZ EDO BERANDU DENOK IZANGO BAITTUGU IKUSMEN ARAZOAK. BERAZ, OPTIKAK ESKAINTZEN DITUEN IRTENBIDEAK EZAGUTZEA INTERESGARRIA IRUDITU ZAIGU.**

## BETAURREKOEKIN GUSTURA

Humberto Ayesta 35 urteko elgoibartarra da eta 8 urte zituenetik erabiltzen ditu betaurrekoak. Astigmatismo deituriko arazoa dauka, hau da, ikusmen nahasia du eta bista nekatzen zaio. Betaurrekoak bere izateko eraren parte direla sinestuta dago, "betaurrekorik gabe arraro sentituko nintzateke, txikitatik ditut eta ohitu egin naiz. Ez dut inoiz lenticlarik probatu, betaurrekoekin oso gustura nago-eta. Lentilak okulistik espreski gomentatuko balizkit bakarrik jarriko nituzke, dioptriak igo ez daitezten laguntzen dutela esaten baitute". Laserrarekin operatzeari ez dio beldurrik, baina ez du beharrik ikusten, "operatu diren lagunak ditut eta emaitzekin oso gustura daude". Betaurrekoek izan ditzaketan alde txarrei edo desabantailei dagokienez, "kirolen bat egiten dudanean kendu egiten ditut, haiek gabe ere ongi ikusten baitut. Giro hotzetatik beroetarako aldaketa bortitzek kristalak lausotzen dituzte, tabernetan sartzerakoan-eta, baina azkenerako ohitu egin naiz". Abantailak gehiago dira, urte

hauetan guztietan bi aldiz bakarrik aldatu ditu betaurrekoen markoa; ez dago produktu garbitzailerik erosi beharrik edo galtzeko beldurrik, lenticlarik gertatzen den moduan. Gainera, gaur egun izugarri hobetu dituzte betaurrekoak, arinagoak, ero-



8 urte zituenetik erabiltzen ditu betaurrekoak Humberto Ayestak.

soagoak eta politagoak dira. "Lehen-go betaurrekoak gustura jazten banituen, are gehiago oraingoak. Abantaila asko eskaintzen dituzte, kasu bat aipatzearen, ordenagailu aurrean egiten dut lan eta pantailaren erreflexuak gutxitzen dituzten kristalak dauzkat".



## ■ LENTILAK, ASMAKIZUN ZORAGARRIA

Begoña Osororen kasua berezia da. Lentilen aldeko apostua egin zuen duela 17 urte eta oso pozik dago hartu zuen erabakiarekin. Begoñak hipermetropia dauka, gertutik ikusteko zailtasuna. Betaurrekoak erabiltzen zituen, baina ez zitzaizkion oso erosoak iruditzen, “oso astunak izaten zian lehengo antiojuak, kristal lodixekin eta sudurra markautu lagatzen zaben hoieta-kuak”. Lentilen berri izan zuenean probatzea erabaki zuen. “Lau urtez lentila fijuak edo gogorrek erabili nitxun. Duela 13 urte, erabili eta botatzeko lentilak sortu zitxuen. Uzurik ia probatzia nahi naban esan zian. Uste det erabili eta botatzeko lentiak probau zitxun lehenengo elgoibar-



*Begoña Osorok erabili eta botatzeko lentilak dauzka.*

tarra izan nitzala”. Inoiz ikusi gabe zituen eta piska bat kostatu egin zitzaion ohitzea. Lehenengo aldiz ikusi zitue-nean eskuetan hartzeko beldurrez ibili zen. “Hasieran galtzeko beldur-rrakin jazten nitxun. Gertutik ikusteko zailtasunak ditzudanez, lentilak jartzia kostatu eitxen jatan, baina segiduan ikasi naban”. Oso gustura dago lentilekin, eta bataurrekoekin gustura ez dauden lagunei ere lentilak jartzeko esaten die. “Begixak kantsauta sentitzen ditzuteniak bakarrik jazten ditzut antiojuak. Baina segiduan bueltatzen naiz lentiletara, inbento zoragarrixa da. Inguruko jendiak igarri ere ez dau itxen lentilak ditzutenik”.

## ■ OPERAZIOA, IKUSMEN PERFECTUA

Begietako kirurgiak sekulako iraultza izan du azken urteotan laserrari esker. Lentilez eta betaurrekoiez aparte, beste aukera bat da ikusmen arazok dituztenentzat. Alberto Ferreirok 34 urte ditu eta duela lau urte laserraz begiak operatzea erabaki zuen. Suhiltzaile izateko deialdi batera aurkeztu zen, eta lanpostua lortzeko bista perfektua izatea eskatzen ziotelako operatu zituen begiak. “Dioptria bat bera ere ez izatea eskatzen zuten. Lana behar nuen, operatzea erabaki nuen miopia oso bajua neukan-eta, 1’25 dioptria inguru bakarrik. Hala ere, beldur apur bat ematen zidan, begietan egin beharreko operazioa baitzen”. Dioptrien arabera, teknika eta laser bat edo beste erabiltzen da. Albertoren kasuan, Excimer deituriko laser mota erabili zuten, oftalmologoak erabiltzen hasi ziren lehen laserra. Kornean zuzendu behar den zatia aukeratu eta Excimerrak erre egiten du, okerdura berdinduz. Horrela, irudiak erretinara iristeko dituen zailtasunak konpontzen dira. Egin beharreko ebakuntza oso sinplea eta la-



*Alberto Ferreirok suhiltzaile izateko operatu zituen begiak.*

burra da, “begi bakoitzeko operazioak 20 segundo besterik ez ditu irauten. Anestesiatzeko tanta batzuk bota zizkidaten eta ez nuen batere minik sentitu. Ebakuntzaren osteko 15 egunak dira gogorrenak, begiaren ikusmen berria eguneroko bizitzara ohitu behar da-eta”. Excimerrak kornearen kanpoko azala erretzen duenez, lehen bi egunetan min izaten da. “Erdi itsuturik eta ohean pasa nituen estreinako bi egunak. Dena dela, berehala berreskuratzen da ikusmena. Orohar, gomendatzeko moduko esperientzia da eta bataurrekoek eta lentilek sortzen dituzten deserosotasunak alde batera geratzen dira betirako”. Operazioak sintomak sendatzen ditu, baina gaixotasunak hor darrai, eta urteak joan ahala, berriz ager daitezke ikusmen arazoak. Gainera, erabiltzen den laser teknikaren arabera, senda daitekeen dioptria kopurua mugatua da. Prezioari dagokionez, 250.000 eta 300.000 pta. inguru balio du begi bakoitza operatzeko. Abantaila ugari baditu, baina arriskuak ere bai, infekzioak adibidez.

## Adituen begitik

Elgoibartarron ikusmenaz gehien dakitenak optikoak direnez, Ikus Optikako Sonia Arriola-rengana eta Uzuri Optikako Uzuri Larrañagarengana jo dugu. Hona hemen kontatu digutena laburbildurik:

□ 40-45 urtetik aurrera denok behar ditugu gertutik ikusteko betaurrekoak, arazo fisiologikoa da, azalean zimurrak edo ile zuria irtetea bezalakoa. Urteak pasatzen diren heinean, begi barruko muskuloak gogortu egiten dira eta ez dugu behar bezala ikusten. Adin horretatik aurrera gertutik ongi ikusten dutenek, begietako beste arazo batzuk dituztelako da.

□ Gazteen artean lentilak erabiltzeko joera dago eta helduagoe-ek, berriz, betaurrekoak nahiago dituzte. Azken aldian, laser operazioak ugaritzen ari dira. Lentilen abantailak hauek dira: ikus daitekeen espazioa edo anguloa betaurrekoena baino zabalagoa da; teoriaran miopia geldiarazten dute; erosoak dira eta ez dira lausotzen. Desabantailak dagokienez, mantenuak arreta berezia eskatzen du, garbi izatea oso garrantzitsua da. Bestalde, galtzeko arriskua dute eta lentilak eramateko ordu kopuru mugatua dago.

□ Gaur egungo teknikei esker, nahiko zehatz graduatu daiteke bista. Beraz, ez dago ikusmen perfektua ez izateko arrazoirik. Miopeak diren gazteek ikusmen perfektua izatea bilatzen dute, eta ikusmena piska bat jaitxi zaiela nabaritzen dutenean, berehala joaten dira graduazioa aldatzera. Lehen, ordea, piska bat gaizki ikusi arren, ez zitzaion gaur egun adinako garrantzirik ematen.

□ Honakoak dira luzaroan ikusmen ona izateko gomendioak: irakurtzerakoan gutxieneko distantzia gordetzea. Leku itxietan argitasuna zaintzea eta argi disdardagorik ez erabiltzea. Bakoitzari dagokion graduazioa erabiltzea. Ordenagailuko pantaila babestea, eta batez ere, eguzkiaren izpiekin arreta handiz ibiltzea.

**2003 URTEAN EUROPISTASi  
KONTZESIOA AMAITUKO ZAIO**

# 2003an autopista doan izango dela uste al duzu?



**ROSA DEZA**

40 urte, etxekoandrea

Agian zerbait merketu dezakete baina ez dut uste doan izango denik. Estatuko beste autopisten prezioekin konparatuz, garestiegia dela iruditzen zait.



**ANA ROSA OÑEDERRA**

34 urte, gozogleia


Oso zaila ikusten dut prezioak jaitea, aitzitik, igo egingo dituztela uste dut. Lehenengo, prezioak 5 pezeta igotzen dituzte eta gero 2 pezeta jaitsi.



**MARIA JOSE SANCHEZ**

61 urte, etxekoandrea

Ez dut uste. Gurean semeek erabiltzen dute gehien. Donostiara joateko ia bederatzehun pezeta ordaintzea gehiegizkoa da.



**SANTIAGO HERNANDEZ**

45 urte, taxista

Ez. Nire lanarengatik ilusio handia egingo lidake, baina ez dut uste doan jarriko dutenik, agian jendeak asko protestatzen badu, zerbait merketzea lor daiteke.



**IÑAKI SOLOZABAL**

39 urte, mekanikoa

Hobe bai, baina ez dot uste autopista duan jarriko dabenik. Eibar-Gazteiz bezalako autopistak eitxeko dirua nunbaitxetik atera bihar dabe eta horretarako daoz peajiak.



**JUANJO RUMAYOR**

42 urte,

**kalitate kontrolatzailea**

Doan izan beharko litzateke, baina, zoritxarrez, kontzesioa amaitzean zerbait asmatuko dutela uste dut, eta ordaintzen jarraitu beharko dugu.

## Txandakako Enpresa Injinerutza

Enpresarekin lanean garatutako lanbide proiektua.  
Lan kontratua lehen egunetik.

### Bilera informatiboa

- Apirilaren 30ean, ostiralean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.
- 18:30ean Makina Erremintaren Institutuko instalazioak bisitatuko dira eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

**Matrikula  
epea zabalik!**

**1999/2000 ikasturtea**

■ Makina Erremintaren Institutua  
San Roke Auzoa, 1  
20870 Elgoibar

■ Tel: 943 74 41 32  
Faxa: 943 74 41 53  
E- maila: ingenieria@fmh.es

■ Orduetgia:  
08:00-13:00  
14:30-17:30

**MH** MAKINA  
ERREMINTAREN  
INSTITUTUA  
**cesi** aquitaine  
poitou-charentes



# ISPILUARI DEGIRA



Mrs. Blanca Sanchez

**JOLAS ARETO DENDAKOA**

- Zein zine izarren aurka jokatu zenuke futbolin partida bat?
  - Richard Gere-ren aurka.
- Zerk jartzen zaitu goxoki batek haur bat jartzen duen bezain pozik?
  - Bidaiatzeak.
- Azukrea beharrezkoa al da bizitza latz hau gozatzeko?
  - Ez, gero eta azukre gutxiago hobe. Ez zaizkit goxokiak gustatzen.
- Ludopata asko al dago gazteen artean?
  - Bai, lan honetan gazteen artean ludopata asko dagoela ikusi dut, eta horrek asko tristetu nau.
- Makinetako biolentziak ez al ditu gazteak horretara bultzatzen?
  - Bai, kalte egin diezaieke, baina guztiengan ez du eragin txarrik.
- Bizitzako zein momentutan sentitu zara futbolineko jokalaria bat bezain txikia?
  - Futbolinean jolasten, hain zuzen ere, inoiz ez baitut jakin horretan joslasteren.
- Zure bizitzako zein momentu gogoratuko zenuke pantaila batean?
  - Haurtzaroa.
- Zein auto da gidatzen errazagoa, makinetakoa ala benetakoa?
  - Makinetako autoa. Ez daukat gida-baimenik eta ez dakit benetako auto bat gidatzeko gai izango naizen.
- Zein dago mundu onetan "game over"?
  - Bill Clinton.
- Zein makinak du arrakasta gehien zure dendan?
  - Petakoak.
- Noiz gustatzen zaizu txip-a aldatzea? Astean zehar, denda isten dudanean. Asteburuetan denbora libre gutxiago daukat denda beranduago isten baitut.
- Helduko al da bake prozesua azken pantailara?
  - Bai, bakea lortuko dugun esperantza daukat. Niri ez zait biolentzia gustatzen, ez alde batekoa ezta bestekoa ere.
- Zer egin behar da zurekin puntuak irabazteko?
  - Zintzoa izan.
- Zein da zure bizitzako azukre koxkorra?
  - Nire senarra.
- Engantxatu al zara inoiz bideojoko batera?
  - Ez, sekula ere ez.
- Zein pelikulatan hartuko zenuke parte birtualki?
  - Zinea asko gustatzen zait, hortaz, biolentziazkoetan izan ezik, beste guztietan, erromantikoak badira hobe.

Ion Gurrutxaga



**Mandiola Egurrak S.L.**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



**ELENA**

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Frantzisko, 49-1 Tel: 943 74 11 89

## ● Odol Emaleen Elkartearen bilera

Datorren maiatzaren 2an Deba Bailarako Odol Emaleek bilera egingo dute Arantzazun. Egun honetan 25 aldiz odola eman duten gizonei eta emakumei zilarrezko domina emango die. Aurten saria jasoko duten elgoibartarrak honako hauek dira: Jose Ramon Rojo, Luis Maria Jauregi, Patxi Juaristi, Dolores Hernandez, Rosa Azkarreta, Milagros Anton, Maria Angeles Gabilondo, Migel Angel Ruiz de Gauna, Juan Jose Laconcha, Domingo Barennetxea, Karmelo Bilbao, Benito Rebollo, Jose Enrique Garcia, Cipriano Serena, Jose Ignacio Arce, Pedro Maria Aranberri eta Jorge Urbietia. Eguerdiko 12:00etan meza nagusia izango da. 13:00etan intsigniak emango dizkiete 25 eta 50 aldiz odola eman dutenei, eta 14:30ean, bazkaria izango da Arantzazuko Ostatuan. Bertara joateko ize-na eman dutenek autobusa izango dute igandean, maiatzak 2, goizeko 10:15ean Txankakuako zubian.

## A-8 autopista doan izatearen aldeko protesta egin zuten aurreko zapatuan

Elgoibartik irten zen auto-ilaran 30 bat ibilgailu zeuden

**B**izkaiko eta Gipuzkoako 200 automobil eta kamioi inguruk protesta egin zuten joan den zapatuan, hilak 17, A-8 autopistan bidesaria ordaintzearen kontra. 'A-8 doan Akordio Soziala'k deitutako 'Inpago Eguna' izan zen eta Donostiatik, Zumaiatik, Zornotzatik, Bilbotik eta Elgoibartik ibilgailu ilara bana atera zen goizeko 10:00ak inguruan. Auto-ilarak autopistan sartu eta ez zuten peajerik ordaindu. Hainbat lekuatik bidesaria pagatu gabe pasatu ostean, auto-ilara guztiek Durangoko peajea bat egin zuten eguerdiko 13:00etan. Durangoko peajera iristean, gidariek taloi berezi batzuk eman zizkieten lehia-tiletan zeudenei. Txarteletan autoaren eta gidariaren datu pertsonalak azaltzen ziren. Auto-gidariak ordaindu gabe pasatu nahi zuten peajea. Ondoren, *Europistas* enpresak aurkitu beharko zuen dirusaria kobratzeko modua.



*Lerungo industrialdetik atera zen A-8 autopista doan izatearen aldeko autoen karabana.*

Antolatzaileek protestan parte hartu zuten ibilgailuen kopuru zehatzik eman ez duten arren, auto-ilara bakoitzean 30 eta 40 auto eta kamioi inguru joan zirela jakin dugu. Auto ilaratan parte hartu ez zuten gidari batzuek ere protesta egin zuten ez ordainduz. Ekintza honen helburua Europistas-i 2003. urtean amaitzen zaion gestio epea ez luzatzea da. Egitasmo honekin, lau urte barru A-8 autopista doan izatea lortu nahi dute.

Pedro Muguruza, 5  
Tel: 943 74 08 06  
20870 ELGOIBAR

★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA  
★ MULTIKOPISTAK  
★ FOTOKOPIADORAK  
★ PLANOEN BIRREGILEAK  
★ ERLOJU INDUSTRIALAK  
★ MARRAZKETA MATERIALA  
★ INFORMATIKA  
★ FAX

**MEKANOSA**  
Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

**POL-POL**  
**T A B E R N A**

San Bartolome, 19 - Tel: 943 74 08 74

## Udaletxeko obrak martxa onean doaz

Elgoibarko Udala kanporako ezezik, barrurako ere lanean ari da. Zerbitzu publikoa den heinean, herritarrei ahalik eta zerbitzu onenak eskaini nahi dizkie Udalak. Jadanik hainbat berrikuntza egin ditu. Besteak beste, 4 komun berri jarri dituzte eta eraberritze lanak burutu dira Idazkaritzan eta Ongizate Sailean, eta Elgoibar sortu zeneko herri gutuna ere berritu egin dute. Orain Udaltxeko fatxadaren, frontoiaren, Udaltzaingoko lokalaren, udaltzainen aldagelen, artxiboaren eta bilera gelaren txanda da. Udaltzaingoko bulegoaren berritze lanekin hasiak dira eta behin-behineko bulegoa Udaletxeko atetik sartu eta eskuinean egongo da. Arlo informatikoan ere berrikuntza ugari egin ditu Udalak. 2 CD-ROM, eskanner, modem-a eta ahotsa ordenagailura transmititzeko tresna bat erosi dituzte. Hauen bidez lanak azkarrago egingo dituzte.



## 'Sobradún' antzerki taldeak bete egin zuen Herriko Antzokia

Joan den ostiralean, hilak 16, Herriko Antzokian jende ugari bildu zen Sobradún antzerki taldearen "¡No hay huevos!" lana ikusteko. Gasteizko taldeko partaide bakoitzak pertsonaia bat baino gehiago interpretatu zituen obran. Gazteei zuzendutako kaleko hizkuntza erabiliz, ikusleak barrezka jarri zituzten, gizartearen ikuspegi matxista islatuz. Saioa bi ordu inguruz luzatu zen eta txalo zaparrada beroaz eskertu zuten elgoibartarrek aktore hauen lana. Argazkian, gaueko funtzioa prestatzeko egin zuten entsaioko une bat ikus dezakegu.



## Giro ona Kultur Errotako 7. emanaldian

*Tabu-Tabar* rock taldeak hasi zuen Gaztetxean gaueko 23:00ak aldera Kultur Errotaren 7. emanaldia. Lasarteko boskoteak giroa alaitu ondoren eszenatokia aldatu eta *Ander Lipus* antzezle markinarrak "Ardoagaz" monologoa eskaini zuen. Ondoren, *Petti* kantari bakarlariak zenbait doinu eskaini zituen eta kantu batzuetan Mikel Irazoki izan zuen lagun. Gazte Asanbladak eta Elgoibarko Izarrak antolatutako musika eta antzerki emanaldiak goizaldeko 2:00ak aldera izan zuen amaiera.

### ● Herri Irratiko bazkideen kuotak

Herri Irratiko bazkideei gogorarazi nahi zaie, aurtengo kuotak bankutik helbideratu beharrean, *Gorostiza* liburudendan jaso beharko dituztela, eta ordaintzeko azken eguna maiatzaren 4a izango dela.

### ● Egonaldiak familia euskaldunetan

"Bizi eta ikasi" lemapean, HABE erakundeak egonaldiak antolatu ditu familia euskaldunetan udarako. 18 eta 40 urte bitarteko adina dutenei eta, gutxienez, euskalduntzearen 8. urratsari dagokion maila daukatenei dago zuzendua egitasmoa. Plangintza honetan parte hartu nahi dutenek eskabide orria bete beharko dute, eta horrekin batera, nortasun agiriaren fotokopia eta euskara mailaren ziurtagiria aurkeztu beharko dituzte. Eskariak maiatzaren 10a baino lehen aurkeztu beharko dira honako helbidean: HABE (Egonaldiak familia euskaldunetan), Vitoria-Gasteiz kalea, 3-20018 Donostia. Argibide gehiago nahi izanez gero interesatuek honako telefonora deitu dezakete: 943 41 26 21.

### ● Gidari turistikoa izateko ikastaroak

Diputazioak, gidari turistikoa izan nahi dutenentzat ikastaroa antolatu du maiatzerako eta ekainerako. Ikastaro honetan parte hartzeko lehentasuna izango dute gai honen zerikusia duten ikasketak egin dituzten pertsonak. Ikastaroa doan da eta bukatzean ordaindutako praktikak egiteko aukera izango dute ikasleek. Informazio gehiago nahi duenak DEBEGESA erakundera deitu beharko du (943 82 01 10 Cristina Iturriagoitia).

● **Babes Ofizialeko etxebizitzaren obrei ekingo diete berriz**

Eusko Trenbideak erakundeko, Hirigintza Sailko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak egindako bileraren ostean, Babes Ofizialeko etxebizitzaren obrak berriz hasia erabaki dute. Bileran hartutako erabakiaren arabera, aurrera begira, trenbidean bigarren karrila jartzeko asmoa daukatenez, trenbidea zabaltzeko behar den espazioa gordeko dute. Horretarako, hasieran trenbideari eman zitzaion zati zabala murriztu dute.

● **San Pedroko zelaia zaintzeko lanpostuaren eskaintza**

Elgoibarko Udalak pertsona bat kontratatuko du San Pedroko zelaia zaintzeko. Lan hitzarmena udarako izango da eta eskaerak aurkezteko azken eguna maiatzaren 5a da. Informazio gehiago nahi duenak Udalera deitu beharko du (943 74 10 50).

● **Hauteskunde zerrendetan erreklamazioak egin daitezke**

Udaleko arduradunek hauteskunde zerrendak jende aurrean daudela jakinarazi nahi dute. Beraz, erreklamazioen bat aurkeztu nahi duenak apirilaren 26tik maiatzaren 3ra arte egin ahal izango du Udaletxeko idazkaritzan.

**Ekaingo kobazuloaren erreplika Zestoan jartzea erabaki dute**

Deba Barreneko proiektua bertan behera utzi dute

**L**a hamar urteko eztabaiden ostean, Ekaingo kobazuloaren erreplika Zestoan kokatzea erabaki zuten joan den astelehenean, hilak 19, Gipuzkoako Batzar Nagusiek.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek astelehenean hobetsi zuten Zestoako proiektuaren oinarria eta Ekaingo haitzulotik 500 metrora, Sastarrain bailaran kokatuko da erreplika, berezko gunearen antza duen beste zonalde batean. Erreplikara doan bidean *Lili* jauregia izango da ikusgai eta bertan museo arkeologikoa jarriko dute proiektuaren arduradunek. Kilometro erdira, kobazuloaren jatorriko ingurua ezagutu ahal izango dute hurbiltzen diren bisitariak. Proiektuaren bultzatzaileen helburua Ekain babestiaz gain, hango ondarea erakustea ere bada.

Erreplika egiteko lanak martxan dira jadanik eta gauzak ondo joanez gero, urtebete barru gauzak amaitzerik egongo liriteke. Guztira erreplika egiteak 300 eta 320 milioi pta. inguruko kostua izango du. Proiektuaren bigarren fasea *Lili* jauregia arkeologia museoa bihurtzea da. Jabetza Zestoako Udalaren eskuetara pasatzeko akordioak ia itxita daude, eta behin hori lortuta, erreplikaren osagarria izango da museoa.



*Deba Barrenean ez dituzte erreplikak egingo baina gaiarekin lotutako parke tematikoa eraikitzeko asmoa dute.*

**Deba Barreneko proiektua**

Deba Barreneko Garapen Ekonomikorako Elkartek (DEBEGESA), Mendi Nekazaritzako Elkartek (DEBEMEN) eta Udalek (Deba, Mutriku, Mendaro, Eibar, Soraluze, Ermua, Mallabia eta Elgoibar), Ekainen erreplika egiteko beste proiektu bat aurkeztu zuten, parke tematiko baten inguruan diseinatua. Batzar Nagusiek onartu egin dute Ekaingo kobazuloaren oinarritutako parke tematikoa Deba Barrenean (Mutriku) kokatzeko proposamena. Honela, Zestoako ideiak oinarri arkeologikoa izango du, Deba Barreneko proiektua aldiz, aisialdi gunea izateko asmoarekin egingo da.

**Eguneko Zentroa inauguratu zuten asteazkenean, hilak 21**

**J**oan den asteazkenean, hilak 21, Eguneko Zentroa inauguratzeko ekitaldi ofiziala izan zen. Bertan Luis Mari Bandres Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetarako diputatua, Maria Jesus Aranburu Gizarte zerbitzuetarako zuzendaria, Belen Elorza Ongizate Saileko arduraduna eta Gillermo Garate alkatea egon ziren. Haritz Taldeko dantzari batek aureskua egin ostean, Luis Mari Bandresek eta alkateak zenbait hitz egin zituzten Eguneko Zentroaren lana goraiatuz. Ondoren, lokala bedeinkatu zuten eta hamaiketako eskaini zuten. Orain urtebete inguru ireki zuten eta egun 8 pertsona eta 3 zaintzaile daude. Pertsona hauek goizeko 10:00etatik arratsaldetako 18:00etara egoten dira egoitzan eta eguneroko ekintzak beraien kabuz egiten erakus-



*Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariak izan ziren Eguneko Zentroaren inaugurazio ekitaldian.*

ten zaie. Horretaz gain, gimnasia, ariketa mentalak eta memoria eta orientazioa lantzeko ariketak egiten dituzte. Etxean arazoak sortzen dituzten edadetuak egoitzara bidali aurrez, hemen egotea da helburua, honela ez baitute kanporatuak diren sentsazioak izango.

# *Txiki* BARREN


LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 52. GEHIGARRIA



**P**asa den astean Herri Eskolako lehenengo eta bigarren mailako neska-mutilak Arrasateko "Ingurugiro-eskolan" egon ziren. Bertan, inguruarekin harremana duten ekintzak burutu zituzten: Udalaizteko basoetatik ibilaldiak, mende hasierako karobiak eta kobazuloak ikusi, ogia egin, urtaroen arabera zuhaitzak apaindu... Eguraldi txarra egin zuenez, baserrian "natura olinpiadak" egin zituzten. Azkenik, domina banaketa egin zuten.

## *Txistea*

- Jaimitok aitari galdetzen dio :
- Aita, komuna bueltaka ibiltzen al da?
  - Txundituta, erantzuten dio aitak:
  - Ez, seme, ez.
  - Aita ene, orduan garbigailuan egingo nuen pixa!.



## Jakitunen eskutik

### Haurren depresioa Nola jakin zure semea edo alaba depresiboa den

**O**so jende gutxi daki hurrek ere depresioa izan dezaketela; horrelako gaisotasunak edukitzeko inolako arrazoirik ez dutela pentsatzen dugu gehienok. Baina, adituek diotenez, gaztetxoengan ere eragiten du gaisotasun honek, eta depresio horren atzean arrazoi ugari egon daitezke: familiakoren baten buruko gaitza edo suizidioa, aitarien edo amaren galera, gurasoen banaketa eta utzi-keria, besteak beste.

Oraindik ez da asmatu gaixo talde honentzat egokia den depresioaren aurkako tratamendurik. Baina zenbait medikuk helduentzat diren pilulak hartzeko agindua eman diete arazo hau daukaten hainbat haurri. Hori dela-eta, botika-multinazionalak medikamentu hauen segurtasuna probatzen ari dira eta depresio kontrakoak haurrentzat prestatzeko saiakerak egin dituzte. Esaterako, "Prozac" delakoak menta zaporea izango omen du.

Hala ere, badira honen aurrean erreparoa azaldu duten adituak. Beldur dira hurrek ez dituzten produktu hauek inolako beharrik gabe hartuko. Batetik, ez da erraza haurrengan depresioa diagnostikatzeko, eta are zailagoa nerabezeroan horren ohizkoak diren behin-behineko egoera kritikoetatik bereiztea. Bestetik, badaude depresioa medizinekin sendatu

ezin daitekeen gaisotasuna dela uste duten pediatrak.

Dena dela, garrantzitsuena berandu izan baino lehen identifikatzea da. Haurrak zenbait astetan honako sintoma hauetakoren batzuk baldin baditu, sendagilearengana joatea komeni da:

**Tristura.**

**Autoestima falta.** Haurrak, "inork ez nau maite", "ez naiz inoren gustukoa" edo "txarra naiz" bezalako esaldiak esan ditzake.

**Haserre.**

**Lehen gustuko zituen ekintzekiko interesa galtzea.**

**Jateko gogoan aldaketak** (gero eta gogo gehiago edo gutxiago izatea).

**Lotarako ohituretan aldaketak.**

Zerbaitetan **arreta jartzeko zailtasunak.**

Inolako arrazoi zehatzik gabe izaten diren

**buruko edo tripetako minak.**

**Jardueretan aldaketak.**

**Heriotzaren edo suizidioaren inguruko pentsamenduak** behin eta berriz izatea.

**Iturria: "La revista" aldizkaria.**

## Zer iritzi daukazu ..... *zigor* .....(r)ei buruz?



Asko hitz egiten dugunean andereñoak bronka botatzen digu. Ondo iruditzen zait, horrela ikasten dugulako klasean nola egon.

MAITE AIZPURI, 8 urte



Oso txarrak dira nere ustez. Gurasoek txilio egiten dutelako zorak gaudela ematen du eta neri buruko mina sartzen zait.

AMAIA DE CASTRO, 9 urte.



Rollo bat dira, horrela ezin dugulako jolastu eta batzuetan erergatik jartzen dituztelako. Zigorrik gabe berdin esongo ginateke.

MARIA DOMINGEZ, 11 urte




**MIKEL ANA-  
KABE**  
7 urte

## Galde debalde

- 1- Zein aktore ezagutu nahi zenuke?
- 2- Zein da gehien gustatzen zaizun musika taldea?
- 3- Zein da zure kirolik gustukoena?
- 4- Zerk aspertzen zaitu?
- 5- Nolakoak dira estralurtarrak?
- 6- Ba al dakizu jakiren bat prestatzen?
- 7- Kolore gustukoena?
- 8- Gustukoa al duzu udaberria?

- 1 - Superman.
- 2 - *Back Street Boys*.
- 3 - Saskibaloia.
- 4 - Nire lagunak ez daudenean aspertzen naiz.
- 5 - Urdinak dira eta ilea puntan daukate.
- 6 - Bai, tortila.
- 7 - Urdina eta lila.
- 8 - Bai, nire urtebetetze eguna delako eta lorak hazten direlako.



**HARITZ  
CALVO**  
14 urte

- 1 - Ez naiz aktoreetan fijatzen.
- 2 - *The Coors* taldea.
- 3 - Futbola.
- 4 - Ikasteak aspertzen nau.
- 5 - Ez dut estralurtarretan sinesten, baina baldin badaude gure antzekoak izango dira.
- 6 - Bai, spaghettiak.
- 7 - Urdina.
- 8 - Bai, kolore eta argitasun gehiago dagoelako.

## Zer da *espazioa*.....?

**MARIA HERNANDEZ 6 urte**



Planeta zahar bat da eta gauza asko daude.

**AMAIA GORROTXATEGI 12 urte**



Zientzilariek zerbait aztertzen ari direla esateko erabiltzen duten aitzakia.

**ION LAGO 7 urte**



Planeta handi bat da.

**LAURA FERNANDEZ 9 urte**



Mundutik ateratzen bazara espazioa aurkituko duzula uste dut, baina ez dakit seguru.

**MIKEL ETXANIZ 12 urte**



Atmosferatik kanpo gelditzen den eremu izugarria. Grabitate indarririk ez dago.

**HARITZ CERVIÑO 8 urte**



Espazioa oso biribila da. Estralurtarrak daude eta nere ustez berdeak eta bitxiak dira.

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Zer da hau?



## 2. Zer galdetu diegu?



**ANDER IZAGIRRE**  
10 urte

"Mendixan txakur batzuekin nenbilen. Gehixeneta gogoratzen ditut eta onak izaten dia, baina normalian ez dizkiot inori kontatzen".

**MIRIAN AROSA**  
9 urte

"Batzuetan bakarrik gogoratzen ditut baina azkenengoan korrika ari nintzen. Txarrak eta onak izaten ditut, eta txarrak direnean esnatu egiten naiz".



## 3. Binan binan berdinak dira

1 →	6 →
2 →	7 →
3 →	8 →
4 →	9 →
5 →	10 →

1	2	3	4
5	6	7	8
9	10	11	12
13	14	15	16
17	18	19	20

## 4. Asmakizunak

— Udan jendez beterik neguan huts-hutsik zutik baino jende gehiago egoten da han etzanik.

— Zer dela eta zer dela gero eta gehiago jan argalago dagoena?

— Bost seme-alaba ditut eta anaia bikia elkarren antza daukagu eta larruzko jantzia.



*Manuel Lazkanok 73 urte ditu, eta jubilatuta dagoen arren, oraindik lanean jarraitzen du. Ortua da bere lantokia, eta Arostegi edo Palazio baserriko terrenoe-tan daukan baratza zaintzeaz gain, Institutuko ortuan ere laguntzaile lanak egiten ditu. Bertako ikasleei tomateak, letxugak eta beste zenbait barazki nola landatu eta zaindu behar diren erakusten aritzen da. Ikasleekin ongi konpontzen da baina noizean behin gaztetxoek egiten dizkiote gaiztokeriak.*

# MANUEL LAZKANANO

## “Ortukoa, eginez ikasten den lana da”

- Noiztik diharduzu Institutuko ortuan?

- Bost hilabete inguru daramatzat bertan. Aurrez beste bi gazte egon ziren lanean eta gero niri proposatu zidaten ortuko ardura hartzea, ni lehenagotik ere aritzen bainintzen baratzeo lanetan. Hasieran ezetz esan nien, baina bigarren aldiz deitu zidatenean pentsatu nuen niretzat denborapasa izango zela, eta hara joaten naiz orain. Astean hiru ordu egiten ditut bertan, bat astearteetan eta ostiraletan bi.

- Zein da zure lana Institutuan?

- Ortuaren ardura daukat. Ikasleak bertara datozenean haziak nola landatu eta barazkiak nola jaso behar diren erakusten diet, eta beraiek ez daudenean ere, baratza zaintzen dut. Dena praktika bidez irakasten diet, azken finean, ortuko lana eginez

ikasten baita. Baina, batzuetan, gogo gutxirekin etortzen dira eta ez dute ez arropa ezta oinetakorik ere aldatzen lurrean aritzeko.

- Zein jarrera erakusten dute ikasleek zurekin?

- Askori ortuko lana ez zaie gehiegi gustatzen, ez baitaude ohituta. Zikintzen direnean kexatu egiten dira eta nik esaten diet, zikindu gabe ez dagoela lan egiterik. Hala ere, nirekin pozik daude. Batzuetan haserre egin behar izaten diet, ortuan gauzaren bat ongi egin ez dutelako, baina hori beraien onerako da, ikasleek gauza berriak jakin ditza-

- Jubilatu ostean hone-lako ardura bat hartzea zaila izan al da?

- Ni betidanik ibili izan naiz ortuan lanean. Lehen lantegitik atera eta baratzer

joaten nintzen. Ortuko lane-tan ohituta nagoenez, ez zait horren zaila egin Institutuko baratzen ardura hartzea. Adin honekin, geldi egon beharrean, horrelako gauza batean hastea lana baino gehiago, entretenimentua da. Ikasleei hasieran piskana- irakatsi nien lurra nola aitzurtu behar zuten, tomate haziak nola erein behar zituzten, belarra nola sartu behar zen... eta ondoren berriak egiten dituzte ortuko lanak. Ikasleek oporrak hartzen dituztenean nik zaindu beharko dut ortua.

- Aubixa aterpetxean ere egiten duzu lan.

- Bai, han ere aritzen naiz. Ortuan, garbiketa lanetan, zerbitzen, denetik egiten dut. Horrenbeste lan egiten ikusten nautenez, lagun batek lehengoan esan zidan, ni gero eta gazteago nengoela eta bera, berriz, gero eta zaharrago.

- Ortutik ateratzen duzunarekin zer egiten duzu?

- Institutuko baratzean ateratzen direnak ikasleen eta irakasleen artean banatzen ditugu, eta nik ere, noizean behin hartzen dut zer-bait. Arostegiko ortuko barazkiak, berriz, gehienetan saldu egiten ditut.

- Anekdotarik?

- Ikasleak gazteak direnez, okerrak ere badira, eta batzuetan gaiztokeriak egiten dituzte. Ortuan erabiltzen dugun karretilak gomazko gurrpilak dauzka, eta noizean behin, zulatuta agertzen ziren. Ni konturatu gabe, ikasleek beraiek sardearekin egiten zieten zuloa. Baina ohartu nintzen eta errieta egin ostean ez dute berriz horrelako okerkeriarik egin.

### BESTEAK ESANA

“Berezko langileak beti du zeregina.”

MARITXU LOIOLA, laguna.






Jose Mari  
Bastida

Jose Mari Bastida 36 urteko elgoibartarra, duela 11 urte Valentzian bizi da. Kazetaritza ikasketak Iruñean bukatu

eta Ingalaterrara joan zen. Urte eta erdiz ingelesa ikastera eta *El País* egunkariaren bitartez praktikak egitera. Handik bueltan, bere emazte Maiteren bitartez, Valentziako irrati bateko lan eskaintza baten berri izan zuen, "nere asmua Madridera jutia zan, han aukera gehixo baita, baina Valentzian itsasua gertu eukitzia ere erakarrixia zan. Gainera hasieratik ikusi gendun valentziarrak oso majuak eta irekixak diazela". Gaur egun Udaleko Kultura sailean egiten du lan eta oso gustora dagoela esan digu, "arratsaldeak nahi dudana egiteko libre ditut eta liburu bat idazten ari naiz gaztelaniaz". *Pelota Valenciana* delakoa ikustea eta paellak jatea asko atsegin dituela aipatu digu. Euskal Herriko mendiak eta Kantauri itsasoaren indarra asko gogoratzen dituela ere esan digu, "lagunak eta Euskal Herriko notizien berri izatia falta jata. Baina sarritan juten naiz Elgoibarrera, lehen 20 egunian behin, 4-5 orduko bidia besterik ez baitago". Semeari euskaraz hitz egiten diola ere esan digu Jose Mari.

VIAJES  BIDAIAK  
**BILBAO EXPRESS**

bidaia agentziak  
babestutako atala

Foruen plaza, 3  
Tel: 943 74 39 12

## Segundo Cengotita Arzuaga

(1890-1966)



- 1890ko martxoaren 24an jaio zen, Errosario kalean. 6 anai-arreba ziren, bera hirugarrena. Eskola Publikoetan egin zituen umetako ikasketak.
- Monagiloa izan zen gaztetan eta bitxikeriarik ere gertatu zitzaion. Goizeko mezan laguntzea tokatzen zitzaion Segundori, baina meza orduan agertzen ez zela-eta, sakristaua bere bila hasi zen. Pilota partidua jokatzen aurkitu zuen sakristauak Segundo, eta honek zion, amaitzean joango zela-eta.
- Gaztetan esku pilotan oso ongi jokatzen zuen eta gizondu zenean, bere anaia, 'Pequeño de Elgoibar' eta Manuel Zabala I. pilotariekin batera, Logroñora joan zen erremontean jokatzerara. Frontoiak krisialdia izan zuen eta Arrasateko pilotalekura joan zen Segundo beste pilotari gehienak moduan.
- Soldaduzkako zozketatik libre atera eta 1924an Paula Galdos arrasatearrarekin ezkondu zen. 3 seme-alaba izan zituzten eta 'Union Cerrajera' lan-tegian leuntzaile moduan egin zuen lan.
- 40 urterekin, ezkondu eta 7 urtera, alargun geratu zen. 1936ko gerratean 3 urte kartzelan pasa zituen, bi urte Santoñan eta beste urte bat Ondarretako gartzelan.
- 1939 urtean Segundo Elgoibarrera etorri zen familiarekin. 'Forjas de Elgoibar' lantokian egin zuen lan jubilatuta arte. Familia aurrera atera zuenean, Eibarko Astelena frontoira partiduak ikustera joaten zen.
- Gizon ospetsua zen, sinpatikoa, apala eta sinismen handikoa. Kafe Izetan, gaur egun Bar Gabi dagoen lekuan, kuadrilakoekin lagunartean txantxa eta barre asko egindakoa da. Euskal kantak ere izugarri gustatzen zitzaizkion.
- Aurreko mendean jaiotako gizon hau, 1966ko abuztuaren 28an hil zen, 76 urte zituela.

Juanito Gorostiza

 DEBA  
**GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

*Aukera ezinhobea!*


Elgoibarko  
erdigunean dagoen  
KAFETEGIA  
TRASPASATZEN DA

Errosario, 34 - 1ezk.  
☎ 943 74 42 83

**BOUTIQUE DEL PAN**

Enpanadak      Enbutidoak  
Baserriko ogia      Bolleria


San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ☎ 943 74 33 92

 INTURAK

PEDRO  
PEREZ BERISTAIN

KOMUNITATEAK  
eta  
FATXADAK  
BERRIZTATZEAK  
PINTAKETA

San Roke, 30 behe.  
☎ 943 74 36 52 - 74 27 89



**A**

ste honetako erretratu zaharra herriar batek laga digu. Bertan "Umore-ona" kuadrilakoak agertzen dira eta 1947. urtean ateratako argazkia da. Kuadrilakoek urtean behin San Rokera igotzeko ohitura zuten. Egun guztia jan-edanean, dantzan eta kantuan pasatzen zuten eta oso pozik itzultzen ziren etxera, hurrengo urteko txangoa ahalik eta azkarren ailegatzeko gogoz. Gainera San Rokera hurbiltzen zen edonork izaten zuen jaiatzeko aukera.

Honako hauek dira argazkian agertzen direnak, lehenengo ilaran ezkerretik hasita: **Antonio Unzueta, Bixente Berazaluze, Joseba Iriondo (†), Gabriel Gabilondo (†), Agustin Sagasta, Ramon Maiztegi, (ezezaguna), Ezkurra** (soinujolea) eta **Mikel Gorostiza**.

Bigarren ilaran, **Genaro Bilbao (†), Bernabe Mujika** (danborrarekin), **Constan Bouzas (†), Antonio Arriola, Juanito Ros (†), Jose Juaristi (†)** eta **Julian San Martin**.

Beheko ilaran, **Florencio Ansola (†)** (txistuarrekin eta danbolinarekin), **Anacleto Salaberria, Joxe Zabaleta (†), Julian Jainaga**, gainean **Luis Mugerza, Juanito Gurrutxaga (†), Amadeo Garate, Manolo Gabilondo, Sabin Gorostiza, Basilio Igartua** eta **Julian Azkue (†)**.



## "Sakrifizio handiko kirola da txirrindularitza"



Iñigo Lariz

- **Adina:** 15 urte
- **Txirrindulari gustokoenak?**  
Marco Pantani eta Abraham Olano
- **Beste kirolik egiten duzu?**  
Mendixakin zerikusixa dakenak, eskalada, eskiatzia eta mendiko bizikletan ibiltzia.
- **Zenbat pultsazio dituzu minutuko?** 50 inguru reposuan

### -Azpeitiko Sari Nagusia irabazi duzu. Nolako lasterketa izan zen?

Hasieratik mugimendu handiko karre-ria izan zan, oso azkarra eta atake askokin. Metatik bi kilometrorra zauan aldapa batian atakau naban, 50 metro inguruko aldia atera nion tropelari eta irabaztia lortu naban.

**-Nola hasi zinen txirrindularitza?** Etxe aurreko atarixan bueltaka ibiltzeko ohitxuria txikitxatik euki dot. Atletismuan hasi nitzan, baina asko entrenau ostian, 4 edo 5 karrera bakarrik eitzen genitxun eta laga in naban. Gero, lagunekin mendiko bizikletan ibiltzen hasi nitzan. Afiziua sortu jatan eta poliki-poliki txirrindularitza munduan sartuz jun naiz, eta gero eta gehixo gustatzen jata.

**-Konpetibitate handia al dago zuen mailan?** Txirrindularixen artian oso harreman ona dao, danok elkar ezagutzen dogu. Karreran guazela elkarrekin berbetan juten gera, eta azken kilometruak heltzen diazenian, bakoi-tza ahal daban hobetuen bukatzen saiatzen da.

**-Zer garrantzi dauka talde lanak txirrindularitza?** Ni kadete mailako bigarren urtian nabil eta gure mailan talde lanak ez dau ixa ezertarako balixo. Profesionaletan oso garrantzitsua da, batez ere ibilbide lauetan ihes egin dabenak harrapatzeko-eta, baina gure

mailan ez dao talde lana itxeko biharrikan.

**-Tropolean joaten ikastea nahiko zaila izango da, ezta?** Bai, nahiko konplikaua da, aurrekuak pasatzen lagatzen ez dizula, atzekuak pasau nahi dabala... tropelian nixenian ez naiz oso komodo juten. Erorketa gehixenak ere tropelian guazela gertatzen dia. Trope-lian zuzen ibiltzen ikasteko onena, bizikletia libre juten dan rodilluetan praktikatzia da, hor ibiltzen ikasi ezke-ro, arazo gutxio izaten dia. Karrera asko indakuan ikasten dozu taldian juten, ohitxura kontua da.

**-Zein dira zure ezaugarriak?** Aldapa gora ibiltzen naiz gustoren. Dana dala, gure adineko lasterketetan apenas egoten dan mendate gogorrik. Desarro-lluak ere kontrolautu dao, gehixenez 50 hagin euki laikez plato haundixan eta piñoi txikixan gutxienez, 16 hagin. Bestela deskalifikau itxen zaitxue.

**-Zer da txirrindularitza gehien erakartzen zaituena? Eta gutxien?** Gehixen, txirrindularixen artian sortzen dan girua eta lagunartia. Gutxien, sakrifizio haundixa eskatzen daban kirola izatia, kirol gogorra dala esaten dabe. Nere ustez, kirol gogorra baino gehixo, sakrifizio haundixa itxia eskatzen daban kirola da, asko entrenau, eguraldi txarrari aurre in, elikaduria zaindu...

## KIROL ALBISTEAK

### ● Maialen Morak urrea irabazi zuen Ordizian eta Ana Etxanizek zilarra

Maialen Morak pisu jaurtiketan Gipuzkoako Txapelketako lehen fasea irabazi zuen larunbatean, hilak 17, Ordiziako Altamira estadioan. Txapelketa berean Ana Etxanizek 600 metroko lasterketan zilarrezko domina eskuratu zuen. Bi atletak infantil mailan aritu ziren. Gipuzkoako atletismo txapelketaren bigarren fasea maiatzaren 8an jokatuko da Anoetako estadioan. Bi atleta elgoibartarrek bigarren fasean lehiazteko sailkatzea lortu dute, eta orain arte erakutsi duten maila ikusirik, irabazteko aukera handiak dituzte. Bestalde, Nuria Revueltak taldekako Gipuzkoako Txapelketan meritu handiko 4. postua lortu zuen 100 metroko proban. Datorren larunbatean, hilak 24, kadete mailako Gipuzkoako Banakako Txapelketan izango du bere azkartasuna erakusteko aukera.

## ESKOLA KIROLAK

### AGENDA (Apirilak 24, 18. jardunaldia)

#### ARETO FUTBOLA (Mintxetan)

- Benjamin mutilak ■  
10:00 Ikastola B - Ikastola C  
10:30 Herri Eskola A - Pilar B  
11:00 Ikastola A - Mendaro A  
11:30 Herri Eskola B - Pilar A

- Benjamin neskek ■  
12:00 Pilar B - Ikastola A  
12:30 Ikastola B - Pilar A

#### SASKIBALOIA (Ikastolan)

- Infantil neskek ■  
9:45 Pilar A - Pilar B  
10:30 Ikastola D - Ikastola A  
11:15 Ikastola C - Ikastola E

- Infantil mutilak ■  
12:00 Insti - Pilar B

- Alebin neskek ■  
12:00 Pilar A - Ikastola B  
12:45 Pilar B - Ikastola C

- Alebin mutilak ■  
9:45 Pilar A - Pilar B  
10:30 Mendaro A - Ikastola A  
11:15 Mendaro B - Herri Eskola

#### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

- Infantil mutilak ■  
10:00 Ikastola - Toki Alai  
11:00 Pilar B - Olazabal

- Infantil neskek ■  
12:00 Ikastola D - Olazabal

#### SASKIBALOIA (Arrasateko Kiroldegian)

- FASE PROBINTZIALA
- Alebin mutilak ■  
10:00 San Viator - Ikastola B

- Alebin neskek ■  
10:00 Almen - Ikastola A

- Infantil neskek ■  
11:00 San Viator - Insti

## Elgoibarko VIII. Duatloia jokatu da igandean, hilak 25

150-200 partaide inguru izatea espero dute antolatzaileek

Igandean, hilak 25, Elgoibarko VIII. Duatloia jokatu da goizeko 10:30ean hasita. Urtero bezala, Euskadiko Triatloi Federazioak antolatutako proba izango da, Urgazi Triatloi taldearen laguntzaz eta Udal Patronatuaren babesaz. Plaza Handian kokatuko dira irteera eta helmuga eta bertan egongo dira baita ere lasterkarien boxeak.

Ibilbideari dagokionez, 3 zatitan banatzen da. Lehenengo zatia saltakako proba da (5.200 m). Ondoren, bizikleta gainean 33 kilometro egingo dituzte eta amaiteko, 3.500 metro saltaka. Azken lasterkariek ibilbide osoa amaitu orduko 13:00ak inguru izango dira antolatzaileek esan digutenez. Azken ordura arte ez da jakiterik izango zenbat parte-hartzaile izango diren ezta hauen izen-abizenik ere, larunbata izango baita izena emateko azkenengo eguna. Dena dela, antolatzaileek 150 eta 200 parte-hartzaile bitartean espero dituzte. Iaz 201 korrikalari izan ziren baina zaila izango da kopurua berdintzea. Izan ere, igandean Espainiako Txapelketa jokatzeko da Galizian eta puntako lasterkari gehienak han izango direla uste dute Urgazikoek.



Urtero bezala, Elgoibarko Duatloia Lehendakari Txapelketarako puntuagarria izango da.

### Lehendakari Txapelketarako puntuagarria

Elgoibarko Duatloia Lehendakari Txapelketaren barruan sartzen da. Txapelketa hau 9 probaz osatua dago eta Elgoibarko seigarrena da. Proba guztietan puntu gehien lortzen dituen izendatuko dute Euskadiko txapeldun. Sarietarako dagokienez, irabazleak 15.000 pta.ko diru saria irabaziko du, bigarren sailkatuak 10.000 pta. eta hirugarrenak 5.000 pta. Nesken eta mutilen kategorietan diru saria berbera izango da eta denek izango dute trofeoa.

## Jubeniletako nesken eskubaloi taldea ez da Espainiako Txapelketako hurrengo faserako sailkatu

Unceta Elgoibar, nesken eskubaloi taldeak Espainiako Txapelketako sektorean hartu zuten parte pasa den asteburuan Tarragonako Ascó herrian. Valentziako, Tarragonako eta Malagako taldeen aurka lehiatu zuten hurrengo faserako sailkatzeko lehian, baina ez zuten sailkatzeko lortu. Lehen partidua Ferrerobus Mislata Valentziako taldearen aurka jokatu zuten eta 26 eta 22 irabazi zuten Uncetakoe. Ascó kataluniar taldearen aurka 5 goleko aldeaz irabazi zuten elgoibartarrek, 25 eta 20 izan zen azken emaitza. Azken partidua zoritxarrez, 27 eta 25 galdu zuten Malagako Fuengirola taldearen aurka. Espainiako Txapelketako hurrengo faserako sailkatzeko, azken partidua berdintzearekin nahikoa zuten elgoibartarrek, baina ezinezkoa izan zen. Azkene-

an, valentziarrek, andaluziarrek eta elgoibartarrek 4 punturekin amaitu zuten. Baina, valentziarrek gol gehien sartu zituztenez, bigarren fasea jokatzeko txartela irabazi zuten.



Unceta Elgoibar eskubaloi nesken taldeak beste bi talderekin berdinduta amaitu zuen baina azkenean, gol gehien sartu zituena sailkatu zen.

## EMAITZAK

### Futbola

Calahorra 1 - Haundi 1  
Elgoibar 0 - Antoniano 0 (1.erreg.)  
Elgoibar 1 - Amaraberri 3 (1.jub.)  
Elgoibar 0 - Real Sociedad 3 (Inf.)  
Urola 0 - Pedrusko 1 (2.erreg.)  
Union Txiki 3 - Elgoibar 0 (L.N. jub.)  
La Salle 3 - Elgoibar 3 (Kad.)  
Zarautz 2 - Elgoibar 0 (Neskak)

### Areto futbola

Extremeno 2 - Zur Ta Lur Elg. 5 (1. maila)  
S.C.R.D. Bidebieta 3 - Zur Ta Lur Elg. 2 (Aut.)

### Futbitoa

Kunta Kinte 5 - Berrogei Duro 4  
Aide Globum 1 - Aizkorak Mendibil 8

### Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIKO jokalarierregularraren 98/99 JOKALARIA . . . . . PUNTUAK

1- Aitor Trebiño . . . . .	32
2- Ibon Muguruza . . . . .	32
3- Madina . . . . .	29
4- Eneko . . . . .	28
5- Díaz . . . . .	29
6- Txasio . . . . .	25
7- G. Lazarobaster . . . . .	24
8- Gurrutxaga . . . . .	26
9- Iker Leonardo . . . . .	22
10- Caro . . . . .	20
11- Beitia . . . . .	18
12- Elkoro . . . . .	15
13- Loren . . . . .	13
14- Igor . . . . .	13
15- G. Leonardo . . . . .	10
16- Portu . . . . .	1
17- Joseba Igartua . . . . .	1

## AGENDA

### Esku pilota, Ikastolan

Ostirala, 23  
22:00 Elgoibar - Hernani  
(Herri arteko txapelketa)

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 24  
17:00 Haundi - Beasain  
Igandea, 25  
12:00 Elgoibar - R. Sociedad (L.N jub.)  
17:00 Elgoibar - Añorga (Neskak)

### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 24  
16:00 Pneumax Elg. - Arrate (Kad. Mut.)  
17:30 Tecnomeca Elg. - Arrate (Jub. mut.)  
19:00 Uneta Elg. - H. Castillo Goi. (Jub. nes.)  
Igandea, 25  
12:00 IMH Elg. - Donibane Mj.(Sen. Mut.)

### Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 30  
22:10 Zur Ta Lur Elg. - Orioko Tab. (1. maila)  
23:10 Zur Ta Lur Elg. - Araba-Etxea (Aut.)

## 436 korrikalari izan ziren 6. Haur Krosean

Eguraldiak lagundu egin zuen krosak iraun zuen bitartean



**I**kastolak urtero antolatzen duen 6. Haur Krosean 436 korrikalari gaztetxok hartu zuten parte. Adinaren arabera 4 ibilbide zeuden eta guztira 14 lasterketetan neurtu zituzten indarrak neska-mutilek. Elgoibarko kaleak goizeko 11:00etatik eguerdiko 12:30ak aldera arte Elgoibarko eta Mendaroko antxintxikari gazte bete ziren. Partaide guztiek jaso zuten domina eta adin bakoitzeko lehen neskak eta lehen mutilak trofeoak jaso zuten garaipenaren oroigarri modura. Adinaren arabera banaturik, ondoko taulan agertzen direnak dira irabazleak:

### VI. HAUR KROSEko IRABAZLEAK

JAIOTURTEA	KORRIKALARIA	DENBORA
92.....	Jaione Maguregi .....	1'23"
92.....	Borja Diez .....	1'17"
91.....	Mirari Egaña.....	1'17"
91.....	Aitor Arrese.....	1'13"
90.....	Maialen Salaberria ....	2'34"
90.....	Unai Cabo .....	2'40"
89.....	Mireia Jauregi.....	2'41"
89.....	Imanol Perez.....	2'22"
88.....	Lara Urain.....	3'42"
88.....	Aitor Arrillaga.....	3'21"
87.....	Dorleta Aranberri .....	3'32"
87.....	Antton Alberdi.....	3'21"
86.....	Maria Maguregi.....	6'20"
86.....	Julen Merino.....	5'26"
85.....	Alaitz Merino.....	5'42"
85.....	Ioritz Conde.....	6'10"
84.....	Ainara Ladron.....	6'05"
84.....	Julen Badiola.....	5'11"
83.....	Oihana Apellaniz.....	6'15"
83.....	Ion Agirregomezkorta....	5'58"

# Udako karpaldia

## Atxutxiamaikarekin

**NOIZ:** Uztailaren 16tik 29ra

**NON:**

- LIZARRAN (Nafarroan).
- Oso ingurune ona.
- Igerilekua eta ibaia.
- Txangoak egiteko aproposa.

**NOREKIN:**

Elgoibarko haurrez gain, Azkoitiko, Lasarteko eta Lizarrako haurrek ere parte hartuko dute.

**MATRİKULA EPEA:**

Apirilaren 26tik maiatzaren 7ra  
Elgoibarko Izarra Kultur Elkartean.

ELGOIBARKO IZARRA  
Ubitarte 4, behea.

Informazio gehiago:  
943 74 16 26 (M<sup>a</sup> Jesus)

**NORENTZAT:**

Lehen Hezkuntzako 6.  
mailakoentzat eta  
Bigarren Hezkuntzako  
1. eta 2. mailakoentzat.

**MATRİKULA:**

25.000 pta. (Bi zatitan  
ordaintzeko aukera izango da).

ANTOLATZAILEA:  
Elgoibarko Izarrako  
ATXUTXIAMAİKA B.T.



LAGUNTZAİLEAK:  
Elgoibarko Udala  
Eusko Jaurjaritza  
Gipuzkoako Foru Aldundia





**INTERNET**EN INGURUAN GAUZA ASKO ENTZUN IZAN DA AZHENALDIAN. ETORHIZUNEAN ORDENAGAILUAREN BITARTEZ KOMUNIKATUHO OMEN GARA, BERTATIK JASOHO DUGU INFORMAZIOA, EROSKETAH EGITEKO AUKERA ERE IZANGO DUGU. GAZTEAK DIRA GEROAREN DINARRIA ETA GAI HONEN INGURUAN DAUHATEN JARRERA AZALTZEKO HIRU GAZTE EHARRI DITUGU GURE ARTERA.



1. Ba al daukazu ordenagailurik etxean?
2. Internet zer den ba al dakizu?
3. Erabili al duzu inoiz?
4. Baliagarria dela uste al duzu?

### ESTHER OTERO

17 urte

1. Bai, lehen idazteko makina geneukan baina orain dela hiru urte auke-

ra gehiago ematen dituela eta, ordenagailua erostea erabaki genuen. Programa guztiak probatu ditut, baina gehienetan idazteko eta marrazkiak

egiteko erabiltzen dut ordenagailua.

2. Bai, badakit Internet komunikazio sare bat dela. Eskolan behin erabili genuen kanpoko jendearekin hitz egiteko.

3. Etxean ez daukat Internetik baina behin eskolan erabili genuen. Ez dut uste etxean izatea beharrezkoa denik. Etxean entziklopediak badauzkagu eta bata bestearekin komunikatzeko agian interesgarria izan daitekeen arren, orainoz ez dugu horren beharrik ikusi.

4. Etxean informazio gehiago izateko egokia da, baina are baliagarriagoa ikusten dut enpresatarako eta lantegietarako. Internet bidez gauzak askoz azkarrago eta hobeto egiten dira. Nik etxean Internet jartzeko asmoa daukat baina orain bera gabe ere ez naiz gaizki bizi.



### LEIRE DIEGEZ

18 urte

1. Bai, orain dela pare bat urte jarri genuen. Lanak makinaz edo ordenagailuz idatzita aurkeztea egokiagoa zela esaten ziguten eskolan eta batez ere, ikasketak zirela eta ipini genuen etxean ordenagailua. Idazteko erabiltzen dut

gehienetan, baina baita jolasteko ere. CD-ROMak ere erabiltzen ditut noizean behin.

2. Bai, komunikazio sare bat da.

3. Behin erabili nuen eskolan, baina irakasleak lagundu zigun sartzen eta helbidea ere berak eman zigun. Etxean ez daukat, baina gustatuko litzaidake edukitzea, batez ere, kanpoko jendearekin harremanak izateko. Gainera, munduan gauza ugari daude eta Internetek horiek guztiak ikusteko aukera eskaintzen du.

4. Oso baliagarria iruditzen zait gauza berriak ezagutzeko. Baina orainoz behin bakarrik erabili dut. Interesgarria iruditu zaidan arren Interneten ibiltzea ez dago nere lehenasunen artean.



### IKER ZURIARRAIN

17 urte

1. Bai, nik dakidanez hiru urte nituenetik eduki dugu ordenagailua etxean, eta iaz, uda aurretik berria ekarri genuen. Gehienetan klaseko lanak egiteko eta jolasteko erabiltzen dut.

2. Bai, ordenagailu asko elkarrekin komunikatzen dituen sare bat da, informazio asko duena.

3. Oso gutxitan erabiltzen dut. Lanen bat bidali izan digutenean Liburutegian erabili dut. Zerbait konkretua nahi izanez gero, oso praktikoa iruditzen zait, baina gauza orokorren bila hastea nahiko zaila da.

4. Lagunak egiteko erabil daiteke eta baita informazioa lortzeko ere. Interneten gauza askori buruzko informazioa dago, beraz, baliagarria iruditzen zait. Irakasleren batek esan digu karrera egiten hasten garenean erabilgarria izango zaigula, beraz, agian geroago etxean ere jarriko dut Internet.



**INTERESEKO TELEFONOAK**

**OSASUNA**

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . 943 461111  
 Txanda hartzeko . 943 743354  
 Planning-a . . . . . 943 742950  
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622  
 Gurutze Gorria . . 943 743864  
 Mendaroko Ospitalea . . 943 032800  
 Odol Emaileak . . 943 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak . . . 943 740442  
 PESA (Eibar) . . . 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . . . . 943 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua . . . 943 744366  
 Udal Kirol Patronatua . 943 744415  
 Kultura Zerbitzua . . 943 742158  
 Mendaroko Udala . . . 943 756100  
 Ongizate zerbitzua . . . 943741008  
 Udaletxea . . . . . 943 741050  
 Udaltzaingoa . . . . 943 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra . . . 943 741626  
 Kiroldegia . . . . . 943 744415  
 Kontsumo Bulegoa . . . 943 743088  
 Liburutegia . . . . . 943 743525  
 Musika Eskola . . . . 943 742145  
 Mintxeta . . . . . 943 744315  
 Parrokia . . . . . 943 740842  
 Postetxea . . . . . 943 741547  
 Gaztetxea . . . . . 943 743572

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoitza . . 943 740296  
 Zaharren Biltokia . . . 943 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola . . . . . 943 74 21 41  
 HHI (EPA) . . . . . 943 74 08 80  
 Herri Eskola . . . . . 943 74 08 79  
 I.M.H. . . . . . 943 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre . . . . . 943 74 02 67  
 Ezenarro (Meka) . . . 943 74 44 80  
 Ikastola . . . . . 943 74 44 41  
 Pilar Ikastetxea . . . . 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN . . . . . 943 74 41 12  
 El Diario Vasco . . . 943 74 40 73  
 El Correo Español . . 943 74 10 82  
 Egin . . . . . 943 10 84 21  
 Zazpiki Irratia . . . . 943 74 34 74

**23 ostirala**

**22:00 ZINE KLUBA**  
 “La vida soñada de los angeles”  
 Aurkezpena: Belen Martinez, Emakundeko Heziketa arduraduna  
 Antolatzaileak: Ongarri Zine Kluba, Haizea E.T. eta Emakunde

**23:00 ASIER SERRANOREN EMANALDIA**  
 Izenburua:  
 Literaturatik Musikara  
 Lanbroa tabernan  
 Antolatzailea:  
 Urruzuno Literatur Taldea

**24 larunbata**

**7:30 MENDI TRABESIA**  
 Irteera Plaza Handitik  
 Antolatzailea:  
 Morkaiko M.E

**12:00 ZAZPIKIREN BILERA**  
 Ganbaran

**19:30-22:15 ZINEA**  
 “Leyenda Urbana”

**21:30 KONTZERTUA**  
*Atom Rhumba* eta  
*Glitter Souls*  
 Gaztetxean

**25 igandea**  
**19:30-22:15 ZINEA**  
 “Leyenda Urbana”

**26 astelehena**  
**22:15 ZINEA**  
 “Leyenda Urbana”

**27 asteartea**  
**19:00 MARGO ERAKUSKETA**  
 Egilea: Xabier Obeso  
 Kultur Etxean  
 Maiatzaren 9ra arte

**28 asteazkena**

**20:00 LIZARRA-GARAZI BURUZKO HITZALDIA**  
 Hizlariak: J. Egibar, A. Otegi eta R. Larreina  
 Herriko Antzokian  
 Antolatzaileak:  
 EAJ/PNV, EA eta HB

**22:00 ZINE KLUBA**  
 “Limpieza en seco”  
 Aurkezpena: Eskarne Larrinaga.  
 Antolatzaileak: Ongarri Zine Kluba, Haizea E.T. eta Emakunde

**29 osteguna**

**19:00 HITZALDI INFORMATIBOA**  
 Gaia: Gestio Eskolaren aurkezpena  
 Hizlariak: Enpresarioak eta ikasleak  
 Makina Erreminta Institutua

**21:00 HITZALDIA**  
 Gaia: Agenda 2.000 Gipuzkoan  
 Antolatzailea: Gipuzkoako ENBA nekazal sindikatua  
 Kultur Etxean

**22:00 ZINE KLUBA**  
 “En compañía de hombres”  
 Aurkezpena: Nerea Izpizua, ELAko prentsa arduraduna  
 Antolatzaileak: Ongarri Zine Kluba, Haizea E.T. eta Emakunde

**30 ostirala**

**15:30 IKUSENTZUNEZKOA**  
 Izenburua: “Islandia oinez”  
 Egilea: Angel Cuerdo  
 Antolatzailea: DEBABE euskaltegia  
 Kultur Etxean

**22:15 ZINEA**  
 “La vida es bella”  
 Antolatzailea:  
 Ongarri Zine Kluba

**ZINEA**



**Zuzendaria: Jamie Blanks.**  
**Antzezleak Jared Leto, Alicia Witt, Rebecca Gayheart.**

**Leyendas Urbana**

Beldurrezko filme hau Estatu Batuetako unibertsitate batean kokatzen da. Hiltzaile misterioitsu bat ikasleak modurik krudel eta ankerrenean asasinatzen ari da. Nataliek ez du beldurrik eta bere ikertzaile senaz baliatuz, hiltzaile misterioitsua nor den aurkitzen saiatuko da. Unibertsitateko aldizkariko kazetari batek eta irakasle bitxi batek lagunduko diote ikerketan.



● **Xabier Obesoren margoak ikusgai Kultur Etxean**

Apirilaren 27an, asteartea, Xabier Obeso errenteriarren margo erakusketa inaguratuko da Kultur Etxean. Arratsaldeko 19:00etan irekiko da eta maiatzaren 9ra arte egongo da ikusgai. Elgoibarren ikusiko ditugun margoak azken bi urteetan egindakoak dira. Guztira 25 edo 30 artelan izango dira. Lantzen duen estiloa surrealismoa da. Ikutu erromantikoa handia duten margoak dira eta gehienbat itsasoa eta paisaiak irudikatzen ditu.

● **Iparaldean mendi trabesia**

Morkaiko Mendizale Elkar-teak Iparaldeko Askain, Larrun eta Sara bitartean egingo duten mendi trabesia antolatu du. Autobusa bihar, hilak 24, goizeko 7:30ean irtengo da Plaza Handitik.

● **Gestio Eskolaren aurkezpena**

Gestio Eskolak, interesaturik dauden gurasoentzat eta ikasleentzat, eskolaren aurkezpena egingo du ostegunean, hilak 29, Makina Erreminta Institutuan. Gestio eskolako ikasleek eta enpresariak egingo dute aurkezpena.

● **J. Egibar, R. Larreina eta A. Otegi Herriko Antzokian**



Lizarra-Garazi Akordioa gizarteratzea helburutzat duen plangintzaren barruan EAJko Joseba Egibar, EAKo Rafa Larreina eta HBko Arnaldo Otegi izango dira asteazkenean,

hilak 28, Herriko Antzokian, iluntzeko 20:00etan. EAJ-PNVk, HBk eta EAK antolatutako hitzaldian, Lizarra-Garazi Akordioaren nondik norakoak azalduko dizkiete elgoibartarrei. Honela, deklarazioaren inguruko zenbait estereotipo uxatu nahi dituzte eta baita bakearen bideak sendotu ere.

● **'Agenda 2.000'ri buruzko hitzaldia ENBA sindikatuak antolatuta**

Esnearen eta haragiaren sektoreak berritzen dituen akordioa da 'Agenda 2.000'. Agenda nola negoziatu den eta 2.000 urtetik 2.006 urtera bitarteko nekazal politika nola izango den baserritarren artean zabaltzeko, Gipuzkoako ENBA nekazal sindikatuak hitzaldia antolatu du datorren ostegunerako, hilak 29, Kultur Etxean. Sindikatu honek baserritarrei dei egiten die bileretara joateko. Hitzaldia ENBAko teknikariek emango dute eta gaueko 21:00tan hasiko da.

● **'Islandia oinez' ikusentzuzkoa asteartean, hilak 27, Kultur Etxean**

Angel Cuerdoren 'Islandia oinez' ikusentzuzkoa datorren ostiralean, hilak 30, izango da ikusgai Kultur Etxean. DEBABA euskaltegiak Kutxaren laguntzaz antolaturiko saioa da. Besteak beste, Islandiako lekuri eder eta ezagunen analisia egiten du eta islandiarren izaerari buruzko datuak ere aipatzen dira. Saioa euskaraz edo gaztelaniaz entzun daiteke eta 45 minutuko iraupena du.

● **'Atom Rhumba' eta 'Glitter Souls' taldeak Gaztetxean**

Gazte Asanbladak antolatuta, bihar, zapatua (hilak 24), kontzertua izango da Gaztetxean gaueko 21:30ean hasita. Bi talde arituko dira: Bilboko 'Atom Rhumba' taldea batetik, eta bestetik, Iruñeako 'Glitter Souls' taldea. Rock musika egiten dute bi taldeek eta sarrera doan izango da.

● **Buztin ikastaroa**

Lurki Elkar-teak buztin ikastaroa antolatu du Udaleko Kultura Sailaren laguntzaz. Buztina lantzeko tornua nola erabili irakatsiko dute maiatzaren 3tik ekainaren 3ra bitartean. Klaseen ordutegia asteleheneetik ostegunera arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara izango da. Informazio gehiago nahi duenak Lurkikoek duten egoitzara jo dezake, Aita Agirre Plaza behean, ezkerreko atean.

**T X A N D A K**

**FARMAZIAK**

	Egunez	Gaeuz
24	Yudego	Yudego
25	Yudego	Yudego
26	Zabaleta	Zabaleta
27	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)
28	Escala	Escala
29	Bidasolo	Bidasolo
30	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)

\* (eguerdiko 2ak arte)

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
**ANDUAGA:** Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**

25 igandea Doña Mercedes

**ONGARRI zine kluba**



Zuzendaria: Anne Fontaine.  
 Antzezleak: Miou-Miou, Charles Berluig, Stanislaw Merchar.

**Limpieza en seco**

Frantzian, bikote burges bat eguneroko errutinaz eta monotoniaz nazkaturik bizi da. Egun batez, Loic ezagutzen duten arte. Loic-en etorrerak bikotearen izkutuko frustrazioak agerian utziko ditu.

**En compañía de hombres**

Emakumeak lan munduan bizi duen egoera aztertzen du filme honek. Emazteek alde egin dien bi yuppik mendeku egarriz, euren frustrazioak Cristie idazkari gormutuarekin lasaituko dituzte.



Zuzendaria: Neil Labute.  
 Antzezleak: Daron Eckhart, Stacey Edwards, Matt Malloy.

## Garajeak

- ♦ Garaje marraduna alokatzen dut Aterpe tabernaren aspian. ☎ 943 74 30 33
- ♦ Olasope industrialdean garaje itxia salgai. ☎ 943 74 31 56
- ♦ Garaje marraduna alokatzen da San Roke 5ean. ☎ 943 74 11 61
- ♦ Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ 943 74 03 81
- ♦ Leku Ederren garaje marraduna edo itxia alokatu nahi nuke. ☎ 930 54 99 31

## Lana

### ♦ ESKAINTZA ♦

- ♦ Kamarera bat behar da jatetxe batean lan egiteko. 6 hilabeterako. ☎ 943 19 24 12 (20:30etik 22:00era. Kontxi)
- ♦ Esperientziadun kamarero bat behar da. ☎ 943 74 36 02 (10:00-13:00/15:19:00)
- ♦ Esperientziadun kamareroa eta kamarera behar dira Elgoibarko taberna batean lan egiteko. ☎ 630 61 76 11

### ♦ ESKAERA ♦

- ♦ Bulegoak, tabernak, kristalak... garbitzen espezializatutako neskek eskaintzen dira. ☎ 630 59 28 46
- ♦ Erizantzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Egunez nahiz gauzez. ☎ 943 74 27 78
- ♦ Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko. ☎ 943 74 41 70
- ♦ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 10:00etatik 16:00etara. Cristiane. ☎ 943 74 08 81-74 07 07
- ♦ Esperientziadun emakumea eskaintzen da gaixoak zaintzeko. Victoria edo Rosa. ☎ 943 74 04 86
- ♦ Etxea garbitu edo umeak zaintzeko emakumea eskaintzen da. ☎ 943 74 34 06
- ♦ Agureak, gaixoak, etab. zaintzeko prest nago. Arratsaldez edo gauzez. Esperientziarekin. ☎ 630 20 97 31
- ♦ Neska eskaintzen da. Arduratsua eta esperientziarekin etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. ☎ 610 68 52 95
- ♦ Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 943 75 62 57
- ♦ Etxeko lanak egingo edo lokalak, dendak eta portalak garbituko nituzke. Esperientzia eta informesak ditut. ☎ 943 74 38 45 (Matilde. Erantzungailuan laga mezua)

## Salerosketak

### ♦ SALDU ♦

- ♦ 3 katu persa salgai. ☎ 943 74 30 29 (17:00etatik aurrera. Jairo)
- ♦ Ford Orion 1.6 diesel autoa salgai. Garantizatua eta egoera onean. ☎ 630 59 28 46 (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)
- ♦ Urtebeteko Seat Ibiza GT TDI 110cv. salgai. Beltz metalizatua, 16" ko O.Z. Llantak, Bilstein suspentsioa eta Eiba CH muelleak dauzka. ☎ 943 74 16 27
- ♦ Tabernako tresneria salgai: kafetera, molinilloa, ontziteria, mahaiak. Prezio onean. ☎ 943 74 43 45
- ♦ 1'35 m.ko ohearentzat ia berria den gerezi egurrezko oheburua salgai. ☎ 943 74 43 98
- ♦ Opel Corsa GSI (SS-AJ) salgai. ☎ 943 74 34 64 (Mikel, gauzez deitu).
- ♦ Kanpin denda altua salgai. 2 edo 4 pertsonarentzat. Berria eta toldoarekin. ☎ 943 74 05 37
- ♦ Musika aparailua salgai. Platoa eta bi pletina dauzka. 5.000 pezetan. ☎ 943 74 23 89 (Maria Jesus)

## Bestelakoak

- ♦ Urrezko perladun belarritako bat galdu dut. Mesedez, aurkitu duenak dei dezala zerbaki honetara: ☎ 943 74 37 82
- ♦ Baserria alokatzen da Zaldibarrren. Ortua eta korta dauzka. Interesatuek helbide honetara jo: Zaldia Plaza 5, Zaldibar (Amaia).
- ♦ Belarritako bat aurkitu dugu Kultur Etxe parean. Bere jabea Udaltzaingora joan daiteke.
- ♦ Lokala traspasatzen da Merkatu Plazan. Prezio eta egoera onean. ☎ 943 74 25 17
- ♦ Aurreko ostiralean, hilak 10, Pista Beltzeko banku batean argazki kamara utzi nuen ahaztuta. Topatu duenak deitu mesedez ☎ 943 74 00 73 telefonora.
- ♦ 12m2ko lokala traspasatzen da Merkatu Plazan. Prezio ona. ☎ 943 74 02 27.
- ♦ Duela astebete *Anayak* lantegiaren parean pultsera gorridun emakumezko erlojua aurkitu nuen. Udaltzainen bulegoan dago.

## Agurrak

- ♦ Zorionak Mendaroko **amama Mariari**, hilaren 27an urteak beteko dituelako. Bere iloba Maialenen eta Aneren partez eta bereziki biloba Ikerren partez.
- ♦ Zorionak **Nekane Zulaikari**, hilaren 25ean urteak beteko dituelako. Familiaren partez.
- ♦ Zorionak **M<sup>a</sup> Aranzazu eta Jose Mari** zilarrezko ezteiak egingo dituztelako. Lagun baten partez.
- ♦ Zorionak **Ion**, hilaren 28an 8 urte beteko dituzulako. Zure lagun Alasneren eta Maiteren partez. Ondo pasatu eguna.
- ♦ Zorionak **Xabi Vazquez** hilaren 24an 10 urte beteko dituelako. 4. mailakoen eta bereziki Asier Urkidiren eta Atorraren partez.
- ♦ Zorionak **Maialen Morari**, hilaren 19an 14 urte bete zituelako. Zorionak baita ere **Sidartari** apirilaren 18an urteak bete zituelako. DBHko 2. mailakoen partez.
- ♦ Zorionak **Iker Martinezi**, apirilaren 22an 15 urte bete zituelako. DBHko 2. mailako nesken partez.
- ♦ Zorionak **Maite eta Ainhoa Uriarteri**, hilaren 20an 15 urte bete zituztelako.
- ♦ Zorionak **Txomin Zabalar**, apirilaren 19an urteak bete zituelako. Familiaren partez.
- ♦ Zorionak **Estibaliz Juradori**, gaur, hilak 23, 18 urte bete dituelako. Ondo pasa! etxeko partez.
- ♦ Zorionak **Iñigo Agirregomez-kortari**, hilaren 13an urteak bete zituelako. Gelako lagun partez.
- ♦ Zorionak **Ikerri**, hilaren 12an 7 urte bete zituelako. Lehengusuen eta bereziki arreba Maiderrren partez.
- ♦ Zorionak **Bea**, 26an 26! Izeba ere egin zaituzte, ez ote da zahartzen zozoen seinale? Muxu handi bat. Estrellakoak.
- ♦ Zorionak **Motrollo bixoi** etxeko danon partez. Muxu handi bat gure txixixari lehenengo urtebetetzian eta aitaxori 28 urte egingo ditzulako.
- ♦ Zorionak **Ioni**, apirilaren 21ean 7 urte bete zituelako. Etxeko eta Nerearen partez.

- ♦ Zorionak **Jorgeri**, gaur, hilak 23, 14 urte bete dituelako. Gurasoen partez eta bereziki bere arreba Luciaren partez.



- ♦ Zorionak **Ainhoa Vazquez**, apirilaren 19an 11 urte bete zituelako. Ezetz asmatu zein garen! agur, zahartxo. Eta zorionak **Leire Vazquez**, hilaren 25 ean 8 urte beteko dituelako. Super muxu handi bat gurasoen partez bizi. Eta Zorionak baita ere Cristinaren eta Amaiaren partez. Ondo pasa eguna.



- ♦ Zorionak **Cristian Arriolari**, hilaren 25ean 4 urte beteko dituelako. Familiaren partez eta bereziki aita-ama bitxien partez.

- ♦ Zorionak **Jennifer Rivero** atzo 11 urte bete zituelako. Amaren, aitaren eta amama bien partez.



- ♦ Zorionak **Mikeli**, hilaren 25ean 2 urte beteko dituelako. Gurasoen, anaia Imanolen, Ainhoaren eta Ionon partez.

- ♦ Zorionak **Patriciari** hilaren 19an 4 urte bete zituelakoguraso Lorenen eta Lurdesen eta familia osoaren partez muxu handi bat.



- ♦ Zorionak **Aitor Conderi**, hilaren 28an 8 urte beteko dituelako. Familiaren partez eta bereziki anaia Imanolen partez.

- ♦ Aupa **Txino!** Hamaika zorion eta mila musu Elgoibarko Izarrako gure dinamitatzaile dinamikoari. Urtebete gehiagoren pisua ez duk ezer bizkar gainean... Ondo pasau asteazkenean!



# zertan datza?

*lizarra-garazi akordioa*



LIZARRA  
GARAZI  
*akordioa*

## HITZALDIA

EGUNA: Apirilak 28, asteazkena

ORDUA: Iluntzeko 20:00ak

LEKUA: Herriko Antzokia

HIZLARIAK: J. Egibar, A. Otegi, R. Larreina

ANTOLATZAILEAK: EAJ/PNV · HB · EA

## ZEZEN-BIDE AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi  
eta motorrentzako  
gida-baimenak



*%10eko deskontua  
Gazte Txartelarekin*



San Frantzisko, 43-1. – Tel: 943 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1. – Tel: 943 20 34 45 – EIBAR

# Amaren eguna



**ABARKA**  
zapatadenda



**APRAIZ**  
lurrindegia



**ASTIGARRAGA**  
loradenda



**BAZAR DESDE 100**  
oparidenda



**CASCANUECES**  
brikolajea



**ECENARRO**  
mertzeria



**IKUS**  
optika



**IOSU**  
bitxidenda



**IRIONDO**  
kiroldenda



**MAIDAGAN**  
jantxidenda



**MIMOX**  
loradenda



**MURUAMENDIARAZ**  
gozotegia



**MUXI**  
kiroldenda



**OSORO**  
zapatadenda



**SALEGI**  
gozotegia